



Mendietatik behera jeisten zihozten urteko lehen elurrak.

EZ ZUEN ATERTU EZ

Joxttin

Con las primeras nieves que comienzan ya a descender de la montaña al valle y a pesar de que el tiempo es muy malo, realizamos la travesía Zizurkil-Azpeitia por Zelatun, sin que nos sea posible ascender a Ernio.

La nieve, el frío y la salsa que tomamos en la txabola de Zelatun son los protagonistas.

Bezperan ondo begiztatu nituen Ernioko elurrak, hurrengo goizean bertatik igaro beharko baikenuen. Gau hartan alaikiro oheratu nintzen, mendietatik behera jeisten zihozten urteko lehen elurrak, haurtzaroan sortu ohi zidan zirrarra eta bezpera hartakoa gauza bat bera zelakoan nago. Gau hartako ametsa, besteek ez bezalako ametsa zen; utopia hutsa ez zen ametsa.

Egun arruntak eman ez dituen lanak hartzen hasia nintzen goizetik. Polainak behar nituen, pasamontaña, guanteak... eguraldiak hala eskatzen zuen eta.

Ahal nuen isilena banebilen ere, txinta apalena nahiko gertatu zen amaren belarri erneak esnarazteko.

—Baino, mutel, ohean egon besterik ez etal!

—Bahoa, bada, horrelako pasada hartzera!

—Ohean sartu hadi goxo-goxo, mutel!

(Ondo dakigu, jakin ere; lehen urrats horrek zenbaterainoko sakrifizioa daraman berarekin, ez du ahaztuko ordea inortxok, sakrifizio horren ondorengo emaitzak zeinen atsegin zaizkigun).

Agurtu nuen egun guztirako. Gainerakoa, Zizurkildik Azpeitiaraino iristean zetzan pentsamentu bakarra. Mendingo sarritan lagun dudanaren etxe atariaraino heldu nintzen, barrura sartu eta itxaro nion azken prestaketak egin zitzen. Botak sartzen zituena bitartean, kaskabar erauntsiak zigor-

tzen zituen begien bistan zeuden zuhaitzak. Erabilitako ontziak arraskan utzi, motxila hartu eta agurtuz oraindik epel zeukan ohea, irten ginen biok kaskabarpean. Ordu-rako erauntsiak suntsitua zuen etxe atariko zuhaitz apaingarria.

Guztia estalirik genuen, begiak ezik. Lehenengo aldapatxoan egokitu gintzaizkion kanpoko giro arrotzari. Zaratetik Andazarraterainoko bidean egun argiz begiztatu daitezkeen: Orio, Zarautz, Getariako arratoia ... itsasertzeko herri haien identifikaziorik gabe, goian -behean nahigabeko mana, ater ezinezko emana, lagun baino gehiago, etsai.

Iritsi ginen Andazarreta, hemen ospitale zaharraren azpian laranja batzuk dastatzeko eta aldi berean gorputza engainatzeko. Aldamenean, aterpexo haietako batetan, astotxo bat besterik ez genuen begien aurrean. Lehenengo begiradatik nabari ziezaiokeen burua erdi jasorik zuelarik, bidali nahi zigun mezua (lehendik entzuna nuen abereek eguraldiari buruz erreazio desberdinen bidez duten aurreikustea).

Berriro bideari heldu baino lehen, eguraldiari aurka egiteko moduan prestatu bezain azkar, bakarrik utzi genuen astotxoa aterpean. Handik gorantz gainean genuen elur bustia, elur malut sendoak, sendoago goraxeago; elur malut ugariak, ugariagoak haizearekin.

Ordurarte ez bagenuen zola zuririk, hasia

genuen boten lokarriak menperatzen, hemendik aurrera urrats bakoitzean boten molde bera KAMET ezaugarri izenpetzen genuen. Aurrera luzatu, atzera, saihetsera... elur zuritik ekidistantzi berbera, minutu batzuk lehentxeago nabarmen ziren hanka arrastoak dagoeneko ezabatuak genituen.

Buelta hartu behar izan zuten bi mendizalekin topo egin genuen:

—Azpeitiara?

—Ez zarete oso eguraldi ederrakin abiatu!

Nahiko kosta bazitzaigun Zelatungo bidea igarotzea, ez zitzaigun gutxiago kosta Zelatungo txabolekin ematea, zeren han goian elurra polainetatik gora izanik, metrotik aurrerantz ikustatzea oztopatzen zigun elur itxuak. Nahi baino pauso oker gehiago emanaz genbiltzala hara-hona, gora-behera ... hainbeste aldiz biok ibiliak ginenak bertan, baina txabolen aztarrenik lortzen ez genuenak, ordea. (Kasu horietan indarren flakezia azkar nabarmentzen da, eta guri ere berdin gertatu zitzaigun. Hiruzpalau botil freskatzen jar zitezkeen, pausoko irekitzen genuen zuloan). Ez naiz oroitzuten ziur, gure ahaleginei esker izan zen edo elur itxu erauntsi hark, piska bat aplakatzeari eman zion. Dena dela, geure begien tiro marra injektaturik genuen txabola batetan eta ateraino iristeko zoria behintzat, izan genuen.

Ez dakit indarrez jo genuen atea, baina berehala ireki zitzaigula bai, bestalde kanpoan egoteko giroa ez zen batere atsegina. Atea ireki ziguten bezala, barrura egin genuen geure elur eta guzti: ezkertera, hiru artzain salda beroa hartzen; eskuinera, beheko su gartsuan, ontzi batetan salda berotzen, eta erdian laguna eta ni. Gure plantak ez ziren benetan enbidiagarriak, hifeak kuzkuldurik tantoka, botak itota, eskuak irekitzeko pereza... Laster garraitu zigun salda beroa guri ere, eskuak katilua- ren kontra jarri zerbait epeldu genituen. Gorputzak dantzatzen hasteko zalantzan zeuden dardarrez. Geure jantzi ekipoa menperaturik zegoen naturaren eguraldi aldaketan aurkako gerlan. (Nik Zelatuneraino gidatzea nuen nere egitekoa, gainerakoa nere lagunari zegokion; Azpeitiaraino gidatzea, alegia.)

Altxatzea egin genuen, non artzain haie- tako batek, gazta jaten ari zela, galdetzen digun:

—Nora zoazte?

—Azpeitiara!

—Ez zarete oso eguraldi ederrakin abia- tu!

Atea zabaltzera prestatu zitzaigun gizon musugorri bera, irekitzera ere bera ardu- ratu zen. Ireki bazuen, ireki zuen; ate erdi- raino, igeltseroek egurrak kentzen dizkio- tenean bezala masari, egiazko horma ba- lire, barru eta kanpo mugatzen zituen ozto- po edo babesle, edo agian bi gauzak, bi egitekoak betetzen zituen zerbait naturala zen.

Lehen pausoak sendoak ziren indar be- rrirei esker, baina mendian indarrak ondo neurtu beharrezkoak direnez; han ere al-

ferrik galduak baziren, zeren Errezil aldera hartu baikenuen, nahigabe. Minutu batzuk lehentxeago utzitako arrasto nabarmenak oraindik bizirik zirauten, beraiei jarraituz heldu ginen gora eta oraingoan Azpeitia- raino atsedetik gabe gidatuko ginduen.

Zuhaitzak kuzkuldurik, lurrari so, otoi- tzean ziruditen belaunikaturik, sekulan ez bezala lermatuak, unetan zerbait argazki- koa, unetan sufritzen ari den gaixo baten antza. Hasi ziren trumoiak, hasi ziren txi- mistak eta gu aurrera gindoazen, metroz metro, alboan utziz hatzapar eroriko mons- truo haiek.

Zola zuriak supituki su zuria hartu zue- naren itxura hartzen zuen tximisteko, haren erreflexu flaxak geure begien kontra jau- rtitikiz. Ni seguruago bilatzen nintzen zu- haizpean bagindoazen, ateratzen nintzen bakoitzeko, salduta uzten nion neure burua tximistaren radioari.

Mailaz maila jaisten ari garen eskaileren gisa, jaisten gindoazen gu era pausoko, urrutiago utziz Gazume. Aldiz lainoa desa- gertzen zenean, elur hodei kargatuak ikus zitezkeen ederki atzekaldean. Orain, bidea atsegintsuagoa zitzaigun. Elurrak alde ba- tera utzi eta pista bati heldu gintzaizkion; honek, hamaika baserri igaroz Azpeitiako geltorika gidatu gintuen. Hemendik aurre- ra, edonori gertatzen zaioena: Pausoak geroz eta sendoagoak egiten genituen Az- peitiako kaleetan, nahiz galdutako bi tipoen itxura gehiago eduki. Arratsaldeko hiru, hiru t'erdia jo zizkigun, eguerdirako iristea pentsatua bagenuen ere.

Gure pausoak ez ziren nahasten, solda- duska igaro berria dutenen berbera irmoki asfaltoa zanpatuz. Asmo sendoaren, sakri-

fizio urrats lortuaren egia pauso bakoitzean lekuko. Orain, etxera telefonoz deitzea gelditzen zitzaigun.

* * *

(* Diotenez, San Ignaziok pasea du Zi- zurkildik Azpeitiara zaldiz.

* Arratsalde hartan Errealak 80/81 liga lortu zuen. Suzirien ezlandak, ez ziren goizekoak bezain beldurgarriak.)

* * *

MENDIAN BIZIA UTZ DUENAREN AITORIZA

Hire aurpegia nahi nian ikusi

Hire ezkutuko egia deskubritu

Hire txapeleko txurtena dastatu

Akaso, nire pioleta ezpata izan duk? Beharbada, nire kranpoiak arantzak? Agian, nire mailukadak rafagak?

hire txurten tenitea dastatzeko egin dudala

Jakin ezak

Ez zerate oso eguraldi ederrakin abiatu!

